

Bilbon, 1802. urtean

Neure lagun eta jaola maite biotzeco:

Ceure bearra dot egun oneetan. Joan zachataz Euscal Erritic Buenos Aires aldera, baña ez gogotic, eta ez biotzetic. Beguitandu, uste eta iruditen jat oraindiño emen bici zareala, beguien aurrean aurrez aur zaitudala; eta, alan, ala baceunquedaz leguez, verba eguin gura deutsut. Eusquera garbi ederrean dagoan cartacho au campora ateratzeco ausardia eta atrebencia artu dot.

Ondo daquizu gure maitetasuna arguitara emoteac cembat neque eta calte gogor dacartzan. Beste lecu ascotan leguez, aguintariac, fedearen eta leguearen defenditzalleac eta erritarrac amurrua aguertzen dabe arguiro euren ezaintasun itsusi baltz guztiaz. Christiñau-legue santa catoliquea ustez arturic, eta ausardia andi bateaz, zuri euren quejac aguertu eta adierazoten eutsuezan. Baita irain arrigarri eta zorrotzac bere. Eta zuc guztia errecivitzen cenducen. Esan lei, euroc diriala sua viztuten daben egurra leguez. Euren esaera eta verbaeguicune banaac dira deabruaren verbac, verba gogaicarriac. Zeinbat bider goiartu, benzutu eta goituco etzenduan deabru madaricatu!

Baña bitartean ni, lotsaturic neure buruaz, geratu nas gogorturic ustezco becatuzco egotaldi arrigarrian; geldiric eta ezer eguin бага. Cerren nola bici emacume bi alcar baturic becatarien guisara? Bada, orduan arrazoizco iruditen jatan neure jaiotz-etorrera ucatuz, jatorrizco sustrai etorcitic alderatu eta urrindutea, norc bere bidetic jarraituteco.

Au onela izan arren, maitea, zu izan zara denpora guztian nire epeltasuna, echea, estalpea, bici-lecua, portua eta ostatua. Ceure ontasunac, eta ez bestec gorde eta jagon nau gaurguiño. Zu izan zara, eta izango zara, nire biotzaren jabea eta sendotzallea, centinela eta eguiazco jabea. Orain egunic asco joango jataz utsic eta alperric, negarrezco erri onetan zuganic erbesteraturic nagoan artean.



*Amesetan nagoala, ez usaiñic ez coloreric bagueco lorateguietan galduten nas zure bila. Dedar eta indar andiaz deitu arren, iges urrinduten zara, itxaso zabalean desagertu arte. Eguiten dot aleguiña zu jarraituteco, baña guztia alperric. Berandu da, bazoaz urrin, atzera beguiratu bague. Gogortu eta zatitu jat biotza dolorez. Damu eta biotz min eguiazco bat sentitzen dot. Damu dot biotz guztiric, eta parquesca nagotzu, laztan izan nozulaco eta nic ez dodalaco jaquin eranzuten. Orregatic escatu nai deusut mesede andi bat, zuri eguinico oquerrac zuzenduteco. Denpora igaroa eta etorquizunecoa eztira gureac. Joana, joan; etorquizunecoa, etorquizun; oraingo denpora au da gurea, eta ez besteric. Eztogu aurreracoan denporaric galdu bear. Len galdu doguna bear dogu orain irabaci, cobratu eta sendatu.*

*Orretaraco, escatu eguiozu ceure guizon prestu eta ondo icusi orri zuen seme chiquiaren maistra artu eguidala. Cerren alan, zuc ezpada, norc cer esango dau? Ceure senarraren onrac eta fama onac balioco deuscue. Escatu eta erregutu eguiozu, arren, biocaitic. Ondo daquizu maitetasun andia deutzedala nire Euscal Erriari, baña eguingo dot aleguiña, jarraituric orain ceure oñetzac, erria ichi, aldez edo moldez belaontzia artu eta lecu aetan egoteco bost ilabetetan. Eguin daigun bioc echea eta bici-lecua an zagozan lecuan. Estalpetu naguizu ceure egape eta guerizpe gozoan. Urrindu eizuz niganic arerio gaistoac. Artu eguizu, bada; gorde, zaindu eta jagon eguizu nire biotz andia, biztuteco nire epeltasuna. Emoten deusut betico verba sendo benetacoa, biciera barri bat asteco eta baquean irauteco. Ez dogu merezi castigua. Maitetu gaitezan, beinic bein, issilic; beguirada gaiztoetatic salbu. Alan guerta dedilla, bici bedi gure maitetasun ederra.*

*Onembestegaz, urren artean, agur.*

*Bizenta* 